

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

12/2019 Foru Agindua, uztailaren 16koa, zeinaren bidez baimena ematen baita Leire Naberan Etxabe eta Beatriz Carrero Vegas andreen behin-behineko izendapenak egiteko, Laudioko Udaleko idazkaria ordezkatzeko hura oportetan dagoen aldirako

Laudioko Udalak atal honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen horren beharra daukala, María Aranzazu Lili Salazar udal idazkaria ordezkatzeko oportetan dagoenean.

Horregatik, proposatzen da Leire Naberan Etxabe udal horretako karrerako funtzionario eta Hirigintza eta Ingurumen Arloaren buruaren eta Beatriz Carrero Vegas udal horretako karrerako funtzionario eta Udaleko Funtzio Publikoko eta Lan Harremanetarako Arloaren buru behin-behineko izendapena egitea, lehena, uztailaren 16tik abuztuaren 14ra bitarteko aldirako (biak barne) eta, bigarrena, abuztuaren 19tik 23ra bitarteko aldirako (biak barne).

Bat etorritz estatu osorako gaikuntza duten toki administrazioiko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52.4 artikuluan xedatutakoarekin.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa. Lege horrek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, 92.bis artikulua berria sartuz, non zehazten baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Leire Naberan Etxabe eta Beatriz Carrero Vegas Laudioko Udaleko behin-behineko idazkari izendatzea, titularra ez dagoen bitartean eginkizun horietan jardun dezaten 2019ko uztailaren 16tik abuztuaren 14ra bitartean (biak barne) bitartean eta 2019ko abuztuaren 19tik 23ra bitartean (biak barne), hurrenez hurren.

Bigarrena. Izendapena aurreko apartatuan aipatutako eperako bakarrik izango da.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Laudioko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta agintzea ALHAOn argitara dadila.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 16a

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua
IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SÁENZ